

The background of the entire page is a photograph of a lighthouse situated on a dark, rocky cliff. The lighthouse is illuminated from within, and its light beam is projected upwards, creating a bright starburst effect against the sky. The sky is filled with horizontal bands of orange, red, and dark blue, suggesting a sunset or sunrise. The sea is visible in the distance, and a small antenna tower is visible on the right side of the cliff.

EITB 2030 ESTRATEGIA

Batzen gaituen etorkizuna

EITB 2030 ESTRATEGIA

Batzen gaituen etorkizuna

Eskerrak eman nahi dizkiegu egunero Eguraldiko Komunitaterako argazkiak eitb.eus-era bidaltzen dituzten pertsona guztiei, eta, bereziki, kontu hauen titularrei, horien irudiak aukeratu baititugu dokumentu hau egiteko:

Azala: Costel Bitere (Zumaiako itsasargia)

24. eta 25. orriak: Daniel Rodriguez (Osakidetzaren egoitzaren eraikina, Bilbo)

26. orria: Jon Hernández (Haizearen orrazia, Donostia)

27. orria: Julia Llamas (Gasteiz)

28. orria: Luis Dadebat (Gazteluko plaza, Iruñea)

34. eta 35. orriak: Txomin Rezola (Baiona Ttipia)

38. eta 39. orriak: Guillermo Aguirre (Probintzia plaza, Gasteiz)

49. orria: Luis Soto (Getariako arraunlariak Zarautzen)

Kontrazala: Alberto Zorrilla (Eretza mendia Gueñesen)

Aurkibidea

1. **EITB: 40 urteko arrakasta euskal gizartearen zerbitzura** 
2. **Jarduteko ingurune berri bat** 
3. **Etorkizuneko erronkak: EITBren dilema** 
4. **EITB 2030 ikuspegia** 
5. **2021-2025 ekintza-plana** 
6. **Bibliografia** 

1

EITB: 40 urteko arrakasta euskal gizartearen zerbitzura

EITB GAUR

EITB Euskadin hedabideak dituen ikus-entzunezko talde publikoa da.

Eusko Jaurlaritzaren mendeko zerbitzu publiko honen helburua da euskal gizartearen eskaerei erantzutea, informazio, dibulgazio eta entretenimenduko ikus-entzunezko eskaintza anitz, erakargarri eta kalitatezkoarekin, euskal kultura eta hizkuntza sustatuz eta egungo ikus-entzunezko ekosisteman euskara normalizatzen, erabiltzen eta hedatzen lagunduz.

EITBk hiru negozio-unitate ditu edukiak sortu eta zabaltzeko: telebista, irratia eta Internet. Gaur egun, bateratuta daude EITB Media sozietatearekin. EITBren eskaintza zabalak informazio eta entretenimendu edukiak eskaintzen ditu euskaraz eta gaztelaniaz. Horretarako, gaur egun, 5 telebista kate (ETB1, ETB2, ETB3, ETB4 eta EITB Basque), 6 irradi (Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Euskadi, Radio Vitoria, EITB Musika eta EITB Euskal Kantak) eta Internet bidez eta online transmititzeko hainbat modu ditu (eitb.eus); baita neurriari egindako telebista-eskaintza ere, eskariaren arabera (EITB Nahieran), eta mugikorretarako aplikazioak, eta edukiak zabaltzea sare sozialen bidez (bai modu irekian, bai beren kanalen bidez).

EITBren hasiera

1982ko maiatzaren 20an, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Euskal Irrati Telebista sortzeko Legea, Euskal Autonomia Estatutuaren 19. artikulua babesean izaera publikoko ikus-entzunezko komunikazio-talde propio batek eskatzen zuen euskal gizartearen aldarriari erantzuteko.

Negoiazio politikoko prozesu luzean parte hartu zuten pertsona askoren konpromisoari eta erabakitaseari esker, irizpide desberdinen arteko oreka lortu zen, eta horren ondorioz sortu zen EITB.

Urte horretan bertan, profesional talde bat Gasteizen hasi zen lanean, euskal irratia eta telebista berriaren oinarriak prestatzen. Geroago, abuztuan, taldea osatzen zuten pertsona batzuek Alemaniako Hamburg estudioetara bidaiatu zuten, erronka berri horren aurrean prestatu eta trebatzeko. Horrela, EITBk Euskal Herriko komunikabide publiko gisa eta sorkuntza-eragile gisa hasi zuen bere ibilbidea, talentu sortzaileko plataforma bat sortuz, gidoilari, artista, zuzendari, komunikazio-profesional eta goi-mailako taldeen bidez, eta Euskadi barruan eta kanpoan aintzatespena izanik.

Beste komunikazio-talde batzuetan ez bezala, EITBren ezaugarria da erabat izaera multimedia duela, eta emaitza orekatuak eta gogobetegarriak dituela jarduten duen hedabide guztietan. Audientziari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan hedabideak dituen ikus-entzunezko talde nagusia eta eragin handiena duena da.

Azken batean, EITB komunikabide publikoaren kasu berezia da eta izan da hasieratik, eta bete egiten du zeregin hori, telebista, irratia, Internet eta zinemako edukien eskaintza elebiduna eskainiz.

Telebista

1982ko abenduaren 31n, Carlos Garaikoetxea Lehendakariaren mezuarekin, Euskal Telebista martxan jarri zen, eta horrela Estatu espainiarrean sortutako lehen telebista autonomikoa izan zen. Hurrengo urteko otsailaren 16tik aurrera ETBk lurretan zuen zentrotik emisioak erabat erregularizatu ziren, 30 bat lagun euskaraz eta gaztelaniaz programazioa eskaintzeko lanean ari baitziren.

Garai hartan, Euskaltzaindia euskararen babeserako euskararen bateratze prozesuan murgilduta zegoen. Prozesu horren ardatza idatzizko euskara batuaren kodifikazioa zen, batez ere erabilera literarioarako. Hala ere, oraindik ez zegoen adostasunik ahozko euskararekin, eta hori erronka handia zen EITBrentzat. Ordutik, taldeak ekarpen erabakigarria egin du hizkuntzaren normalizazioan, gizarteak onartutako ahozko estandarra finkatuz, batez ere erregistro formalean.

Urte batzuk geroago Euskal Telebista kanal bakar bat izatetik orotariko bi kate izatera pasatu zen: **ETB1** eta **ETB2**. Gainera, nazioarteko emisioak hasi ziren Amerikan eta Europan **ETB Sat** eta **Canal Vasco**ren bidez, EITBko edukien irismena beste herrialde batzuetara eta euskal diasporara zabalduz.


Kable bidezko telebista digitalaren etorrerarekin, EITBk bere hedapena eta eskaintza zabaltzeko ahal izan zituen bi kanal tematiko erabiliz: **ETB3**, euskara hutsezko edukiekin eta batez ere haur eta gazteei zuzenduta; eta **ETB4**, programazio elebidunarekin eta ekoizpen propioko entretenimenduan zentratuta, hala nola telesailak, filmak eta kirola.



Irratia

Euskadi Irratiaren emisioak 1982ko azaroaren 23an hasi ziren Donostian, baita telebistarenak baino lehenago ere, euskara hutsezko eskaintzarekin. Urte berean hasi ziren **Radio Euskadi** gaztelaniazko irrati-kate generalista emititzen. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak irrati lizentzia eskuratu zuen Araba osoan emititzeko, 1934an sortutako Radio Vitoria irratia eskuratuz.

1990ean Gaztea sortu zen, publiko gazteenari zuzendutako irrati musikala. Irrati horren edukiak eta nortasuna aldatuz joan dira, eta erreferente bihurtu dira euskal gazteentzat. **EITB Musika**, bosgarren irratia, 2001ean iritsi zen musika garaikide eta klasikoaren eskaintzarekin, Euskadin egindako musika jaialdien emanaldiarekin eta beste eduki kultural batzuekin. Azkenik, 2019an, **EITB Euskal Kantak** irrati digitala sortu zen; euskarazko musika sarean zabaltzeko eta sustatzeko. eitb.eus-eko ataritik sartzen da.



Internet eta EITB Nahieran

EITB 1996ko abenduan iritsi zen Internetera eitb.com bezala, online presentzia izan zuen komunikabide aitzindarietako bat izan zelarik. Hasierako fase baten ondoren, 2000. urtean, ETBk Amerikan webgune bidez egiten zituen lehen emanaldiekin bat eginez, EITBk aurrerapauso bat eman zuen eta irratiko eta telebistako zuzeneko edukiak streaming bidez hurbildu zizkien mundu osoko EITBko teleikusle eta entzuleei. Geroago, 2014an, webguneak eitb.eus-era migratu zuen, euskararen eta euskal kulturaren komunitatea Interneten identifikatzen duen domeinua.

2011. urtean, EITBk **EITB Nahieran** sortu zuen, telebista-edukien kontsumoa neurri handi batean aldatuko zuen web-plataforma berria, eta aukera emango zuen eduki guztietarako sarbidea izateko, erabiltzaileek nahi dutenean eta nahi duten bezala, gailu guztietara egokitzeko aukerari esker.

Lau hamarkada euskal gizartearen zerbitzura

Diferentzia markatu duten historia eta gertaerak¹



Lehenengo irratia

Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Radio Vitoria euskarazko eta gaztelaniazko orotariko irratik publikoak bihurtzen dira.

20/05/1982

EITB sortzen da

Eusko Legebiltzarrak aho batez onartzen du Euskal Irrati Telebista sortzeko Legea.



1149 M €-ko aurrekontua

149,2 M €-ko balio ekonomikoa sortu da

1.178 langile

4 egoitza Bilbon, Miramonen, Gasteizen eta Iruñean, eta 3 ordezkari

1982

ETB eratzen da

ETB abenduaren 31n iristen da gure etxeetara, euskaraz eta gaztelaniaz. Gaur euskaraz igortzen du bakarrik.



Albistegietako liderra Euskadin

2.a telebistako hedabide autonomikoen sailkapenean



EITB Media

2020

Sozietate-integrazioa

EITB multimedia komunikazio eredu berrira egokitu da, telebista, irratia eta Interneteko negozio unitateak bateratuz.



2019

Online irratia


EEITB Euskal Kantak euskarazko musika irratia berria da eta eitb.eus-etik sar daiteke.



2014

ETB4 heltzen da

ETB4k ETBk/Sat ordezkatzeko eta telesail, film eta kirolen programazioa eskaintzen du.



Arrakastaren giltzak

Sortu zenetik, EITBk oparoaldi ekonomikoak izan ditu, baina baita atzeraldi eta krisialdiak ere. Zerbitzu publikoaren rola ildotik, egitura sendo bat eraikitzea lortu du, bidean agertu diren ezbeharrak gainditu eta haietatik ikastea ahalbidetu diona, euskal gizartearekiko konpromisoa indartuz eta sendoago betez. Berrogei urteko ibilbidearen balantzea eginez, EITBren DNaren parte diren eta arrakastaren formula diren funtsezko lau elementu identifika ditzakegu:

1. Hurbileko informazioa eta kalitatezko entretenimendua


EITBren profesionalen plantilla bere aktibo handienetako bat da, eta ezagutza sakona du bakoitzaren espezializazio-arloetan, bai eta euskal hizkuntza eta kultura ere. Hori edukietan islatzen da, hurbiltasuna, konpromisoa eta zerbitzu publikorako borondate argia erakutsiz.

Ezaugarri horiek aintzat hartu eta baloratu ditu euskal gizarteak, EITB hurbiltasuna transmititzen duen eta kalitatezko informazio-iturri sinesgarria eta entretenimendu-iturria dela uste baitu.

2. Profesionaltasuna eta konpromisoa

EITBk egiazkotasun, objektibotasun eta aniztasun-irizpideetan oinarritutako multimedia eskaintza erakargarri eta kalitatezkoaren aldeko konpromiso sendoari eusten dio. Erakundearen funtsezko zeregina da albistegietan lider den multimedia-korporazio gisa duen posizionamenduari eustea, profesional onenen alde eginez beren komunikabideetan lan egiteko.

Hurrengo profesional-belaunaldietan etengabeko prestakuntza-apustua egiteak, hizkuntzaren tratamenduan bikaintasuna lortzearekin eta informazio-ikuspegiarekiko konpromisoarekin batera, EITBren bereizgarri diren audientziek hautemandako kalitatean eragiten dute.



Covid-19a 2020an agertu izanak eraldaketa izugarria ekarri du, aurrekaririk gabea, ingurune politiko, ekonomiko, sozial eta teknologikoan. Gainera, EITBk ustekabeko egoerak, egoera lurrunkorrak, zalantzagarriak, konplexuak eta anbiguoak kudeatzeko duen gaitasuna frogatu du. Erronka horri aurre egiteko, bizkortasuna, berrikuntza eta egokitzeko gaitasuna behar izan dira. Orain, ezbeharrak gainditu ondoren, EITBk etapa berri bati ekingo dio, erakunde gisa duen erresilientzian konfiantza berrituta.

3. Egokitzapen teknologikoa

EITBk euskal gizarteari eta bere erakundeei lagundu die aro digitalaren egokitzapen teknologikoaren maila lortzeko konpromisoan. Horretarako, teknologia berrietara egokitzeko potentzial osoa zabaldu du, eta, horrela, etengabeko hobekuntza lortu du, edukien eskaintzan eta kudeaketarako barne-prozesuetan islatzen dena.

Edukien eskaintzari dagokionez, Interneten egoteko apustua erabatekoa izan da. Gaur egun, EITBk marka bakarrarekin (eitb.eus) eta bere plataforma digitalen bidez jarduten du edukiak argitaratzeko, eta kanpoko beste plataforma batzuk erabiltzen ditu eduki horien inguruan erabiltzaileen komunitateak sortzeko. Plataforma propioak edukitzeak audientziak monitorizatzeko eta une bakoitzean kontsumo-joerak aztertzeko datu ugari izatea ahalbidetzen du, edukien eskaintza benetako eskaerara egokituz.


Bestalde, IKTak barne-prozesuetan ezartzeak aukera ematen dio EITBri eguneroko eragiketak sinplifikatzeko eta arintzeko. Ilido horretan, erakundeak “Zero Paper” kudeaketa-sistema eraginkorra du duela hogeitazortetik, eta horrek datuak biltegiratzea, kontsultatzea eta tratatzea errazten du, kudeaketan trazabilitatea bermatuz eta paperaren erabilera arrazionalizatuz.

4. Iraunkortasun ekonomikoa

EITBren urteko ustiapen-aurrekontua izaera mistoko finantza-araubide batean oinarrituta ezartzen da. Araubide horrek, alde batetik, ekarpen publikoa (programa-kontratua ezarria) eta komunikabidearen finantzaketa propioa konbinatzen ditu, funtsean publizitatearen bidez sortzen dituen diru-sarreraren arabera. Finantzaketa publiko-pribatuko eredu hori irtenbide eraginkorra da kostu publikoaren zati bat EITBk sortzen dituen diru-sarrera propioen bidez ordaintzen delako.

EITBk ekitaldi guztietan orekatu ditu sarrerak eta gastuak, eta, batez ere, zero defizitaren eta zorpetze-ezaren politika bati eutsi dio, kudeaketa-agindu gisa. Alderdi hori programa-kontratua bertan jasotzen da.

Horregatik, ikuspegi estrategikoa oreka bat lortzean datza, ikus-entzunezko baliabide publiko gisa zeregina betetzea ahalbidetuko duena, kalitate handieneko edukiak eskainiz, baina betiere baliabideen administrazio zuhur eta zentzuzkoaren esparruan eta bikaintasuna kudeaketaren helburu gisa hartuta.



EITB sendotu egin da euskal gizartearen informazio-iturri fidagarri, sinesgarri eta hurbil gisa, eta, aldi berean, kalitatezko entretenimendu-eduki propioen eskaerari erantzuten dio. Herrialde barruko eta kanpoko gure pertsonen ahotsa eta irudia da, eta funtsezko osagaia lurralde osoan kide izatearen sentimendua sortzeko.

Espacio culinario conducido por el cocinero Ander González y la nutricionista Gabriela Uriarte.

Teleberri kirolak

Eguraldia

LND flash



2

Jarduteko ingurune berri bat



Inguratzen gaituen ingurune globala

EITB eragile garrantzitsua da egungo ikus-entzunezko ekosisteman, eta funtsezko pieza da euskal ikus-entzunezkoen sektorean. Hala, ezaugarriak partekatzen ditu sektore berean bizi diren eta antzeko erronka eta mehatxuei aurre egin behar dieten beste eragile askorekin. Horien guztien jarduera aldaketa azkar eta etengabeak gertatzen diren ingurune batean garatzen da, eta EITB Taldearen aukera eta erabaki estrategikoak baldintzatzen ditu.

Etengabeko aurrerapen teknologikoek, gizarte-aldaketek eta kontsumo-ohitura berriek eragina dute EITBren misioan, helburuetan eta jardueretan, euskal gizartearen zerbitzurako hedabideak dituen ikus-entzunezko talde publiko gisa. Faktore horiek, digitalizazioarekin batera, edukiak sortzeko eta zabaltzeko modu berriak ahalbidetzen dituzte, unibertso berean enpresa tradizionalak eta negozio-eredu berriak, globalak eta tokikoak, elkarrekin bizi diren bitartean.

Era guztietako eduki digitalak, informaziozkoak zein entretenimendukoak, banatzeko eta eskuratzeko aukera berriak erabakigarriak dira gaur egungo panoraman. Ingurune horretan, EITBk bere jarduera, helburuak eta ekintzak egokitu behar ditu eraldaketa horri erantzuteko.

Gure etorkizuna eraikitzeak EITB aldaketa teknologiko eta sozialetara egokitzea dakar, jarrera irekiarekin, joera globalekin bat etorritik, baina bere nortasunari eutsiz eta euskal herritarrentzako zerbitzu publikoaren rola betez.

Komunikabideen ingurunea Europan

Globalizazioa eta digitalizazioa

Enpresa globalek sortutako edukien hedapen globaleko prozesua.

Sektorearen atomizazioa Europan

Plataforma eta komunikabide korporatiboen kontzentrazio ekonomikoaren aurreko lehiakortasun-ahultasuna.

Plataformen aurrerapena

Hazkunde esponenziala, inbertsio handiagoa eta zerbitzuen garapena ahalbidetzen duen finantzaketak lagunduta.

Desinformazioa

Adimen artifizialak albiste faltsuen hedapenean duen eragina.

Tokiko komunikabideen desagerpena

Komunikabide publikoen sektorearen kapital-muga eta erreakzio berantiarra testuinguru sozioekonomiko globalean (nazioartean PSM – *Public Service Media* ingelesezko siglekin identifikatuta).



Globalizazioa eta digitalizazioa

Informazioaren teknologien aurrerapenak ikus-entzunezko esperientzia berriak eta datu-transferentziaren eta irisgarritasunaren maila berriak ahalbidetu ditu, aurrekaririk gabe. Baina ondorioak ez dira gertaera teknologikoetara bakarrik mugatzen; globalizazio-prozesua bizkortzen dute eta ikuspuntu lokalaren eta globalaren arteko tentsioa ere areagotzen dute.

Bestela esanda, berrikuntza-prozesuen abiadurak, teknologia erabiltzeari ez ezik, beste hainbat alderdiri ere eragiten die, hala nola gobernantzari, gardentasunari eta giza kapitalaren eta kapital intelektualaren kudeaketari.

Europako komunikabide publikoen erreakzioen helburua da egokitzea egitea, zerbitzu publiko gisa duten rola zaindu ahal izateko, audientziekin harremanak izateko gaitasuna handitzen edo mantentzen duten bitartean. Ingurune digitalean garrantzia bilatzea Europako komunikabide publikoak eraldatzeko gakoetako bat da, BBCren, YLE finlandiarraren edo RTÉ irlandiarraren estrategietan adibide argiak jarrita.

Paradigma berriek, hala nola edukien baterako sorkuntzak, digitalizazioaren erronka zabaltzen dute. Horiek ikusgarri egiten dira, besteak beste, VRT Sandbox telebista flandestarrean edo beste hub-eredu batzuetan, non hainbat erakundek bat egiten duten ikuspegi industrialak elkarrekin sortzeko eta birplanteatzeko komunikabideetatik haratago, askotan estankoak eta siloetan eraikiak. Bereziki, EITBren sozietate-integrazioa bezalako oraintsuko mugari bat norabide horretan aurrera egitearen isla da.


Mundu digital berri honen ezaugarri nabarmenetako bat irisgarritasuna da: produktu eta zerbitzu digital guztiek publiko guztiengana heltzeko bideak hobetu behar dituzte. Hori lortzeko behar diren ikerketa eta garapena argi eta garbi lotuta daude inbertsio- gaitasunarekin.

Illo horretan, Europako hedabideen sistemak inbertsio txikiarekin egin behar dio aurre hamarkada bati, baina kapital-merkatuetan ia mugarik gabe sartzeko aukera duten enpresa jabeen plataformak esponentzialki hazten ari dira, eta horrek gero eta oztopo handiagoa sortzen du komunikabide publikoetan sartzeko.

Gainera, testuinguru horrek bultzatutako negozio-ereduek ezartzen dituzten baldintzetan, tokiko jabetza intelektualak, batzuetan, eskubideak merkatu guztiei eta betiko lagatzeko betebeharra du, sormen-sektorea desfinantzatzuz eta sortutako balioa beste sektore batzuetara birbideratuz.

Ondorioz, enpresa horiek guztiak unibertso digital eta globalizatu berrian lehiatzen dira. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da lankidetzak-esparruak eta aliantzak ezartzea hainbat eragilerekin eta hainbat mailatan, eta EITBk dituen broadcast eta online (narrowcast) emisio-aukeren konbinazioa indartu beharreko puntuak dira, "transmedia" eta "crossmedia" edukietarako bilakaera lortzeko.

Honez gain, tokiko eremuan erreferente izateak eta, aldi berean, errealitatearen ikuspegi globala eskaintzeko munduari irekita egoteak dakarren tentsioa kudeatu behar da.



Plataformen aurrerapena

Kontsumo-ohitura berriek eragin erabakigarria dute EITBren errealitatean, eta erronkak dituzte euskal gizartearen zerbitzurako komunikabide publiko gisa dituzten helburuak lortzeko.

Informazioaren teknologiak azkar erabiltzearen ondorioz, edukiak Internet bidez transmititzeari esker, eragile berriak sartu dira, irrati-difusiorako bitarteko fisikoek ezartzen zituzten ohiko murrizketarik gabe (antenen hedapena, kableak, zuntz optikoa, adibidez), eta jatorri teknologikoko enpresa handiei jarduera horretan pisuzko aktore bihurtzeko aukera eman die.

Enpresa berri horiek hedabideen ekosisteman sartu dira, eta, ondorioz, komunikabideen erakunde "tradizionalek" eta ikus-entzunezkoen sektoreak egoera berri horretara egokitzeko izan dituzten erreakzioak gauden egoera birkonfiguratzeko ari dira, eta ziurrenik epe labur eta ertainean aurrera egingo dugu. Bestela esanda, era guztietako eduki digitalak banatzeko eta eskuratzeko aukera berriak erabakigarriak dira egungo panoraman.

Datuek argi erakusten dute. 2015 eta 2019 artean, on demand bideoaren Europako sektoreak urteko diru-sarrerak % 332 handitu zituen. Neurri handi batean, telebista irekiaren sektorea geldirik dago OTT (over the top) plataformen aurrerapenaren ondorioz.

Gaur egun, 140 milioi etxe baino gehiago harpidetuta daude on demand bideo-zerbitzuetara, plataforma amerikarrek (Netflix eta Amazon, bereziki) gidatutako merkatua. Euskadiren kasuan, herritarren % 70ek (18 eta 44 urte bitarteko pertsonak) kanal bat edo bi dituzte ordaintzeko, EITBk duela gutxi egindako kontsumoari buruzko inkesta baten arabera.

Bilakaera horren ebidentziarik sendoa honetan ikus daiteke: Interneteko erraldoien eta teknologia estatubatuarren merkatua % 83,8 hazi zen 2015 eta 2019 artean, baina aldi berean, Europako merkataritza-telebistak % 0,9 baino ez ziren igo, eta ikus-entzunezko sistema publikoa, berriz, % 0,1.



Fenomeno horren argitan, industria osoaren dezelerazio-pronostikoak egiaztatu dira, 2024ra arte urtean % 0,1eko hazkundea aurreikusi baita Europarako, Olinpiar Jokoak edo Eurokopa bezalako ekitaldien eragin ziklikoak kontuan hartu gabe.

Azken batean, plataformek izan duten aurrerapen azkarra ez dela iraultzen dirudi. Lehia-agertokian, merkatuko indarren aldetik behintzat, eragin handiagoa dute Interneteko erraldoiek eta teknologikoek. Hala ere, konponbideak ez du merkatu-indarren parekatzearekin zerikusirik, ikus-entzunezkoen munduan komunikabide publikoak berrestearekin baizik.

Tokiko hedabideak desagertzea

Europako hainbat eskualde-hedabidek zailtasun egoerak izan dituzte iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko, eta komunikabide publikoek murrizketak izan dituzte aurrekontuetan, eta are tentsio handiagoa sortu dute finantzetan. Lehiakortasun-egoera ez da tokiko hedabideen aldekoa, diruzaintzan presioa jasaten baitute eta ordezkio digital berrien lehiamehatxuaren aurrean erantzun behar baitute.

Sektorea eraldatzeko prozesuaren ondorioz, egitura txikienak zaurgarriagoak dira. Eraldaketa horrek, egitura handienetan negoziatio-boterea areagotzeaz gain, gero eta lehia handiagoa sortzen du eragileen artean, eta horrek are zurrunbilotsuagoa egiten du egoera.

Europako ikus-entzunezko hedabide publikoek gizarte digitalaren aurrean duten egoera eta joerak² azterlanaren arabera, hedabide publikoen finantzaketa globalak baliabide publikoak galdu ditu azken hamarkadan; izan ere, merkataritza-sarrerren murrizketa ge- higarriarekin batera, aldi horretan sektore osoak finantzaketaren % 30eko galera izan du.


Fenomenoa sakonago aztertuta, ikusten da per capita aurrekontuek bilakaera desberdina dutela, eta argi eta garbi erakusten dute aurrekontuen uzkurdua orokorra den arren, eskualdeko komunikabide publiko guztiek ez dutela murriztu per capita aurrekontua.

Gutxi gorabehera 100 mila milioi euroko balioa duen merkatua izanik, **% 28,1** lizentzia eta funts publikoetatik dator, eta ordezkio horiek mehatxupean dituzten diru-sarrerak harpidetzak (**% 33,7**) eta publizitatea (**% 38,2**) dira.

Oro har, Europa osoan doikuntzara jo duten hedabideek bat egiten dute 2008ko krisiaren ondoren aurrekontu-doikuntza handiena izan duten lurraldeekin.

Fenomeno hori termino absolutuetan kuantifikatzen badugu, Europako korporazio autonomiko guztiek 500 milioi euroko diru-sarreraren galera garbia izan dute, eta, ondorioz, sektorearen tamaina murriztu egin da, eta horrek zaildu egiten du txikien biziraupena.

Europako eskualdeko irrati-telebisten per capita aurrekontuen bilakaera 2011-2019 (%)



Iturria: Geuk egina, FORTA, Eurostat eta Ikus-entzunezkoen Europako Behatokiaren datuetan oinarrituta.

2. Iturria: Santiago de Compostelako Unibertsitatea (USC), Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakunde edo Entitateen Federazioa (FORTA). Korporazio-txostena 2020-2021: Europako ikus-entzunezko hedabide publikoek gizarte digitalaren aurrean duten egoera eta joerak aztertzea.

Europako ikus-entzunezko sektorearen atomizazioa

Merkatuaren zatiketa erronka bat da. Ikus-entzunezko enpresa europarrek eta, bereziki, komunikabide publikoek beren hurbileko publikoa hartzen dutenez ardatz, gero eta lehia handiagoa dagoenez, negoziatzeko gaitasuna nabarmen murrizten zaie.

Europar Batasunaren barruan, adibidez, Europako filmak batez beste hiru herrialdetara esportatzen dira, eta Estatu Batuetakoak, berriz, hamar herrialdetara. Estatu Batuetatik datorren ekoizpena EBko bildutako diruaren % 66 da.

Sektore pribatuari dagokionez, Europako ikus-entzunezko taldeak munduko 50 talde nagusien diru-sarreraren % 11 dira, eta AEBetako taldeak, berriz, % 70 baino gehiago. Edukien globalizazioak jarraitzen duen ibilbidea argia da, eta tokiko merkatuetan sakabanatuta eta bideratuta dauden eragileen artean erantzuteko gaitasuna ahuldu egiten da borroka desberdin batean.

Erantzun gisa, EBk berriki modernizatu du bere erregelamendu-esparrua ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuei buruzko Zuzentarau berrikusiarekin (AVMSD) eta copyrightaren erreformarekin, adierazpen-askatasuna alderdi guztietan bermatzeko modurik onenari buruzko eztabaida zabalen ondoren. EBren ekintza horien helburua da:

- **Berreskuratzea:** Batzordeak ikus-entzunezko enpresei eta komunikabideei egungo ekaitza igarotzen laguntzeko eta likidezia eta finantza-laguntza emateko aurreikusi duena.
- **Eraldatzea:** Egiturazko gaiei heltzea, industriari klima-larrialdiaren eta digitalizazioaren “trantsizio bikiak” bezala ezagutzen direnei aurre egiten lagunduz, mundu-mailako lehia basatiaren testuin guruan.
- **Aukera ematea eta indartzea:** sektorean berrikuntza handiagoa ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea, aldi berean baldintza parekatuak bermatuz eta herritarrak edukietara errazago iristeko eta erabaki informatuak hartzeko ahaldunduz.



Desinformazioa

Hauteskunde-prozesuetan bizitako esperientziak, COVID-19aren pandemian jasandako desinformazioa eta informazio faltsu eta engainagarriaren etengabeko esposizioa gai nagusia dira European Democracy Action Planerako (EDAP).

Europak, bere komunikabide publikoekin funtsezko tresna gisa, hauteskunderen osotasuna eta parte-hartze demokratikoa ziurtatu behar ditu, adimen artifizialeko tresnen erabilera kaltegarriaren mehatxupean, askatasun mediatikoa eta pluralismoa ziurtatu behar ditu, eta desinformazioaren aurka borrokatu behar du.

Bide horretan, EBk eta estatu kideek zenbait neurri hartu behar dituzte desinformazioari aurre egiteko:

- Online plataformei betebeharrak eta erantzukizun gehiago eskatzea.
- Alderdi interesdunen baterako erregulazioaren eta parte-hartzearen ikuspegia.
- Desinformazioari eta monitorizazio iraunkorrari buruzko Praktiken Kodea indartzea.

Beste neurri batzuen artean, desinformazioaren monetizazioa murriztearen, gertakarien egiaztatzaileen arteko lankidetzaren, anplifikazio artifiziala mugatzearen eta ikerketarako datuen dibulgazioaren garrantzia identifikatzen da. Gainera, berebiziko garrantzia hartzen du herritarrak informatutako erabakiak har ditzaten gaitzeko prozesuak, edo, bestela esanda, alfabetizazio mediatikoaren garrantzia nabarmentzeko prozesuak.

Europako Batzordeak alderdi horiek 2019-2024 lehentasunen testuinguruan duten ga-rrantzia nabarmendu du. Bere analisiak datu harrigarriak islatzen ditu:

Pertsonen
% 83k uste du
desinformazioak
demokrazia
mehatxatzen duela.



Europako pertsonen
% 51k uste du
Interneten
desinformazioaren
eraginpean egon direla.

Europako kolektibo
gazteenen
% 63k astean
behin baino gehiagotan
egiten diete
aurre albiste faltsuei.



Zer gertatzen ari da komunikabide publikoekin

Jarraian, EITBren antzeko ezaugarriak dituzten ikus- entzunezko komunikazio-enpresen erronkak eta erantzun estrategikoak aztertuko ditugu.

Erronkak

- Konpetentzia digitalak mehatxatutako komunikabide eredugarrien eredia.
- Gales: hedabideak zabaltzeko arazoak.
- Eskozia: hizkuntzaren eta kulturaren berezitasuna.
- Belaunaldi-trantsizioaren erronka.
- Small Screen, Big Debate – agenda soziala, gobernuak, entzuleak, arautzaileak eta industria inplikatzeko dituenak.



Estrategiak

- iPlayer plataformen aurrerapenari erantzun gisa.
- Gaelikoaren edukia iPlayerrera integratzea.
- Mg Alba aliantza gisa Gaelic Media Servicerekin (gaelikoz Eskozia izenarekin).
- Kalitatea eta edukia, konfiantza eta guztientzako irisgarritasuna lehenestea. Erresuma Batuen nortasuna islatzea.
- Askotariko edukia, pentsarazten duena eta toki- eta eskualde-mailan garrantzitsua dena ardatz duena.

Erronkak

- Finantza-jasangarritasunaren beharra.
- Gardentasuna.
- Frantsesa hizkuntza nagusi gisa bateratzea.
- Digitalizazioa plataforma frankofonoen eskuragarritasunaren ikuspegitik.



Estrategiak

- Publizitateko diru-sarrerak finkatzea.
- Edukien kalitatean eta espezifikotasunean sakontzea.
- Esposizioa biderkatu.
- Operazio-jarduna hobetzea.

Erronkak

- Gizarte eta hezkuntza-rolari balioa ematea.
- Desinformazioaren aurkako borroka.
- Nederlandarren hizkuntza-normalizazioa.



Estrategiak

- Balio ekonomikoa sortzean oinarritutako negozio-eredua (2,5 € diru-kutxa publikoan, inbertitutako 1 € bakoitzeko).
- Kanal eta zerbitzu eskaintza zabala 7 milioi biztanleko komunitatearentzat.
- Lau ekintza-ardatz: hizkuntza, musika, artxibo historikoa eta esanahi ideologikoa.

Komunikabide publikoen sektorea

Erakunde publikoak beren printzipio gidariak erabiltzaileen izen onarekin eta leialtasunarekin bateratzeko irtenbideak aztertzen ari dira.

Erronkak

- Murrizketa handiak eta telebista-kanalen % 50 ixtea.
- Informazio fidagarria prozesatzeko beharra (Covid-19arekin areagotua).
- Erabat digitalizatutako gizartea, identitatearen eta jatorrizko ekoizpenaren galeraren mehatxupean dagoena.
- Edukiak eskuratzeko aukera baldintzatzen duten multinazionalen mehatxua.



Estrategiak

- Pertsonen eta instituzioen berregituraketa organikoa.
- Kontsumo digitalera egokitzea.
- Gutxiengoetara iristea, eskariaren araberrako egoeren bidez.
- DRTV online zerbitzua bultzatzea.
- Adimen artifiziala txertatzea eta datuak kudeatzea, pertsonalizazioan hobekuntzak lortzeko, beste eskaintza batzuen segmentazioetatik kanpo.

Erronkak

- Konplexutasuna egituraren eta independentzia bere hedabideetan.
- Telebista da nagusi – protagonista, beste hedabide batzuen aldean, eta finantzaketa handiagoa du.
- Zerbitzu publikoko tarifaren eredua.
- Publikoarekiko gardentasun-erronka.



Estrategiak

- Berritzea, online aukera bat izateko.
- Sormen-eraginkortasuna eta ikaskuntza.
- Aro berrira egokitzea.
- Suedia osorako garrantzitsuak izatea.
- Kontuak argi, kuantitatiboki eta zehatz ematea.

Erronkak

- Publikoak edukia erabiltzen duten inguruak ezagutzea.
- Herritarrek hedabideei (publikoak bereziki) egingo dizkieten erabilerei aurrea hartzea. Nagusitzen diren kontsumo-moduek ezartzen dituzten baldintzapenak.
- Edukiak hedatzeko funtsezko faktoreak identifikatzea, bai eta lehiakideek NRKren "espazio propioan" aurrera egiteko duten tokia eta modua ere.



Estrategiak

- Edukien erreferente globala bihurtzea. Axolagabetasuna saihestea, Nordic noir generoaren eragin globala aprobetxatzea.
- Norvegiako demokrazia indartzea eta garatzea.
- Norvegiar bizi diren guztiak batzea eta tartean sartzea.
- Gigantic-small Broadcaster. Klase globaleko ekoizpena.
- Gazterian eta kirolean arreta jartzea.

3

Etorkizuneko erronkak: EITBren dilema

Orain arte deskribatu dugun komunikabideen eta, oro har, ikus-entzunezko ekosistemaren inguruneak termino, kontzeptu eta funtzio asko birdefinitzea dakar. Irrati telebista publikoaren negozio-eredua, ezagutzen dugun moduan, agortzeaz dago, eta, horren aurrean, komunikabide publikoak berrasmatu egin behar dira, gizartearen eskaera eta beharretara nahiz komunikazio-modu berrietara egokitzeko.

EITBren sorrera-printzipioak eta ikus-entzunezko komunikazio-joera berriak bateratzeko lanean, funtsezko faktore jakin batzuk agertzen dira; faktore horiek EITBk etorkizunerako estrategia diseinatzerakoan oso kontuan izan behar dituen aukerak eta mehatxuak dira.

EITB euskal gizarteari zor zaio, eta, beraz, bere betebeharra da zerbitzu publikoaren rola indartzea eta eraldaketa-eragile gisa duen inplikazioa indartzea, sorrerako helburuari leial eutsiz.

Zerbitzu publikoaren rola birdefinitzeko, beharrezkoa da audientziak neurtzera bideratutako eredu batetik aldentzea eta inpaktuen eta balio sozialaren eredu baterantz aurrera egitea. Gizartean ekarpen esanguratsua lortzeko, beharrezkoa da gizarteak EITB balio propiotzat hartzea. Bestela esanda: helburua ez da entzuleria, gizartean duen eragina baizik. Edukien hornitzaile bat baino gehiago izan behar dugu; balioen eta emozioen hornitzaile bihurtu behar dugu.

Gaur egun, ikus-entzunezko kontsumoa datozen urteetan nolakoa izango den eta zein kanal, formatu, aplikazio edo euskarriren bidez egingo den ezin da zehatz-mehatz aurreratu. Hala eta guztiz ere, prestatuta egon nahi dugu informazioa, egunerokotasuna, kultura eta entretenimendua kontsumitzean EITBren hedabideak eta edukiak erreferentzia izaten jarraitzeko eta euskal gizartearen eske zein beharrei erantzuteko.

EITBk aurre egin behar dien 5 Erronkak

Gure gizartean eragina sortzeko eta arrastoa uzteko ardura horrekin, euskal gizarteari zerbitzu publikoa emateko bidean aurrera egiteko aurre egin behar ditugun 5 erronka nagusiak identifikatu ditugu.

1

Ikus-entzunezko gaitasun globala

AEBetan ekoiztutako eduki gehienekin, sektoreak desberdintasun nabarmenak ditu komunikabide publikoen eta sektore pribatuaren artean. Tokiko hedabideak ez dira elkarren artean lehiatzen, baina denek egiten dute audientzien engagement-erako lehia talde ekonomiko handiekin: Skyk 24 milioi erabiltzaile ditu; RTLk 68 telebista kate eta 30 irrati ditu; Mediaset Europa hegoaldeko liderra da Espainian eta Italian audientziaren % 30 baino gehiagorekin; Vivendik 20 milioi harpidedun baino gehiago ditu.

4

Gazteekiko lotura emozionalaren galera

Hedabide digitalak dira ikus-entzunezkoen kontsumoan lehen aukera EAEn bizi diren 18 eta 29 urte bitartekoaren artean. Youtube lehen postuan dago, % 84,9rekin; ondoren, ordainpeko telebisten plataformak daude % 76,3rekin, eta ohiko telebista, berri, % 67,1 da. Baina lotura baldintzatzen duena ez da ingurunea bakarrik, baizik eta eduki-mota, (eta forma ere bai) Europako eskualdeetako hedabideak joera nagusiekin lehiatzen diren berezko generoen esplorazioaren bidez deskubritzen ari direna.

2

Komunikabide publikoen legitimitatea

18 eta 29 urte bitarteko belaunaldiak aurreko belaunaldiak (30-49 urte) baino mesfidantza handiagoa sentitzen du egitura tradizionaletik. Era berean, tarteko belaunaldi horrek mesfidantza handiagoa sentitzen du 50 urtetik gorakoek baino. Bestalde, EAEko kontsumo-ereduek agerian uzten dute plataformetako edukiaren kontsumoak nabarmen egin duela gora, ohiko telebistak baino gehiago. Tableta, ordenagailua eta mugikorra bezalako gailu digitalen erabilera gero eta handiagoak (orduak egunero) joera horren norabidea areagotzen dute.

5

Inbertsio- eta ekoizpen-beharra

Netflixek 13.000 milioi dolar inbertitu zituen 2018an, Amazonek 5.000 milioi. Over-the-top (OTT) hornitzaileek aurrekontuak dituzte 'mainstream media' gisa kokatzeko, bereziki gazteenei zuzenduta. Dimentsio horiek erronka bat dira beren historia ikus-entzunezko baliabideen bidez kontatu nahi duten herrirentzat.

3

Ingurune teknologiko eta sozial aldakorra

Komunikabide publikoaren balio publikoa ezin da estatikoa izan, etengabe berritu eta egokitu behar da egungo gizartearen teknologia, audientzia eta behar berrietara. Gizartea eta pertsonak komunikatzeko erabiltzen diren egiturak aldatzen badira, ikus-entzunezko komunikabideen eskaintzak ezin du berdina izaten jarraitu.

Zer egingo dugu erronka honen aurrean

Dilema nagusia

Dilema horri aurre egin behar diogu, funtsezkoa baita erakunde gisa dugun etorkizunari heltzeko eta definitzeko orduan. Funtsezko galdera da, eta erantzun egin behar dugu jarraitu beharreko bidea behar bezala identifikatzeko. Eta egin dugun hausnarketa estrategikoa, hain zuzen ere, gai horri buruzkoa da.

Gure dilema

Zer esan nahi du izaera
publikoko ikus-entzunezko
talde bat izateak, **European**
kokatutako **herrialde txiki**
batean, **kultura propioa** eta
hizkuntza gutxitua zaintzeko
helburuarekin,
digitalizazioaren eta
globalizazioaren aroan?

Nor garen ulertzea da dilema konpontzeko printzipioa

Gure funtsa: Zerbitzu publikoa eta eraldaketa-agentea.

Izaera publikoko ikus-entzunezko hedabide gisa, EITBk bere funtsa osatzen duten funtsezko hiru printzipiori erantzuteko agindua du: informatzea, entretenitzea eta prestatzea.


Komunikabide publiko gehienentzat komunak diren printzipio horiez gain, EITBren misioak sorrerako printzipioetatik datozen beste helburu batzuk ere baditu. Horiek EITBren sorrerari buruzko 5/1982 Legean jasotzen dira, eta euskal kultura eta hizkuntza garatzearekin, sustatzearekin eta zabaltzearekin lotuta daude, bai eta printzipio demokratikoak eta bizikidetzakoak defendatzearekin ere.

Sorrerako kontzeptu horiek, gure izateko arrazoiak, identitate propioa ematen digute, gure ekintza eta gogoeta guztien ezaugarri dena, eta oso gogoan izan behar duguna planteatzen dugun dilema ebazteko.

EITBk ikus-entzunezko hedabide publiko gisa duen rola birdefinitzean, garrantzi berezia hartzen dute ekoizten eta banatzen dituen edukiek, horiek baitira bere misioak, helburuak eta asmoak betetzeko bide nagusia.

EITBk egiten duena garrantzitsua da, baina baita nola, zertarako eta norentzat egiten duen ere. EITBk jendeari kezkatzen dionaz eta gertatzen denaz interesatu behar du, eta kontuan hartu behar du edukiak egiteko eta zabaltzeko orduan; pertsonengan pentsatu eta jendearen alde eta jendearentzat lan egin.

Azken batean, zerbitzu publiko gisa duen rola indartzeko, EITBk euskal gizartearekin batera eboluzionatu behar du, baina baita horren parte gisa ere. Eta eskatzen dituen aldaketei eta konpromiso sozialei erantzun behar die, tartean sartuz eta gizarteari izan nahi duena izaten lagunduz.



Euskal gizarteak EITB bere zerbait bezala sentitzen du. Euskadin gertatzen dena EITBk kontatzen du: gure informazioa, jaiak, tradizioak, kezkak eta arazoak. Gizarteak EITB aukeratzen du herrialdean zerbait gertatzen denean eta informazioa behar duenean.

Nortasuna: Gure nortasuna definitzen duten zeharkako lau ardatzak

EITBk egiten duen zerbitzu publikoaren bokazioa du. Horrek esan nahi du euskara zaindu egin behar dela eta euskal kultura zabaltzeko eta zaintzeko funtsezko pieza izan behar duela, eta, gainera, herri gisa dugun ikuspegi partekatutik datorren mundu propioaren ikuspuntu eta ikuspegia proiektatzeko ardura izan behar duela.

1. EUSKERA: EITBk euskara zaindu eta bultzatzeko duen borondateak euskarazko edukien sarbidea eta kontsumoa bermatzera garamatza, hedabide eta plataformen bidez herrialde barruko zein kanpoko ikus-entzuleengana hurbilduz, eta euskal ikus-entzunezko ekosistema sendotzeko funtsezko rola geure gain hartzera.

2. KULTURA: Euskadiren eta euskal gizartearen gizarte-erlaketan laguntzea funtsezkoa da EITBk zerbitzu publiko gisa duen rolean. Gure kultura osatzen duten musika, zinema, kirola, ezagutza, ohiturak eta bizimodua zaindu behar ditugu, Euskadin eta munduan sustatuz eta proiektatuz.

3. “EUSKAL FRAME”: Zerbitzu publikoa izateak eta hizkuntza eta kultura propioak eta bakarrak dituen herrialde bat ordezkatzek esan nahi du oso ondo ulertu behar dela zerk definitzen eta bereizten duen euskal gizartea munduko gainerako herrialdeetatik. EITBk ulertu ez ezik, partekatu eta transmititu ere egiten du, euskal testuinguruan kokatutako eduki eta gai propioak eskainiz.

4. ZERBITZU PUBLIKOA: Ikus-entzunezko euskal talde publiko gisa, EITBren helburua informazioa, entretenimendua eta prestakuntza ematea da, eduki guztietarako sarbide unibertsala eta doakoa bermatuz. Helburu horrekin, EITB enpresa gisa indartu behar dugu, euskal gizartearen garapenean eta eraldaketan laguntzeko eta parte izateko, proiektu arrakastatsu baten bidez, euskal herritar guztiak identifikatuta, aintzatetsita eta harro sentitzeko.



EITB gizartearen eragile eraldatzailea

Ikus-entzunezko eduki publikoen erreferente gisa, EITBk euskal gizartearen eskaera, behar eta berezitasun sozial, kultural eta linguistikoei erantzun behar die. Horregatik, etengabe hitz egiten du herritarrekin, eta pentsamolde ireki eta eraldatzailea hartzen du.

Gaur egun gizartea kausengatik mugitzen da, haien alde borrokatzen du eta aurrera egiten ari da. EITBk eragile eraldatzaile gisa inplikatu nahi du Euskadi eta euskal gizartea garatzen laguntzen duten kausa kolektiboetan.

EITB unibertsala, irekia eta doakoa izateko apustua egiten dugu, pertsona guztiengana iritsiko dena, eskaintza zabala eta askotarikoa izango duena, era guztietako hedabideak eta generoak eskaintzeko gai izango dena, kalitatezkoa eta egiazkoa, kontsumitzaileei nahi dutena ikusteko eta entzuteko aukera emango diona, nahi duten lekuan, nola eta nahi dutenean, arrakala digitala gutxituz, teknologia eskuratzeko aukera eta ezagutza zein adina edozein izanda ere.

Inplikazio horren froga gisa, ia agerikoa da urteak igaro ahala EITBren agenda zabaldu egin dela, eta helburu berriak sartu direla, besteak beste:

- ikus-entzunezkoen euskal sektorearen garapena;
- gizarte-kohesioa (genero-berdintasunaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan);
- gobernantza arduratsua;
- ingurumenarekiko kezka;
- enpresa-gardentasuna; eta
- herritarren parte-hartzea.

Zeregin horiek guztiak betetzeko, EITBk egokitzapen-prozesu bati ekin behar dio, eta, prozesu horretan, eboluzionatu egin behar du, gizartearekin paraleloan eta gizartearen zati gisa, komunikabideen egungo testuingurua osatzen duten berezitasunei nahiz ikus-entzunezko ekosisteman ikusten eta aurreikusten diren aldaketei erantzunez.



Ilido horretan, funtsezkoa da gizartea banaka nahiz taldean ordezkatuta egotea EITBn eta haren edukietan. Ordezkaritza honek bere errealtateari erantzun diezaion lortzea bezain garrantzitsua da modu egokian egitea, hau da, egungo garaiekin bat etortzea, formatu eta forma narratibo berriak tradizionalekin konbinatuz eta bi egoerek eskaintzen dituzten aukerak ustiatuz.

Prozesu hori ere erronka handia da, eta hori lortzearen arabera izango da EITBk gizartean eragiteko eta inpaktua izateko duen gaitasuna handitzea eta, horrela, eraldaketa-eragile gisa duen rola indartzea. Horrela bakarrik bete ahal izango ditu erabat zerbitzu publiko gisa dituen helburuak, bai eta egungo testuinguruari eta etorkizun hurbilenari erantzuteko bere gain hartu dituen zeregin espezifikoagoak ere.

Euskadi eraldatzeko funtsezko gaietako bat digitalizazioaren eta globalizazioaren aroan hizkuntza gutxitu bat zaintzea da. Premisa hori funtsezko elementua da, halaber, Europako komunikabide publiko askotan; izan ere, hainbat aukera estrategiko hartu dituzte, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin, kasuaren arabera.

1981ean, herritarren % 34k euskara ulertzen zuela uste zen; elebidun eta elebidun pasiboa zen. Gaur egun, kopurua ia % 60ra iristen da, eta erdiak, gutxi gorabehera, euskarazko telesailak eta filmak ikusten dituela dio, batez ere ETB1en eta Interneten.



4

EITB 2030 ikuspegia

Euskal ikus-entzunezkoen eta euskarazko edukien bermea izan behar dugu kontsumo eta euskarri digital berrien aurrean, gure komunikabideak euskal gizartearentzako erreferentzia izanik informazio eta zerbitzu publikoan, gazteekin konektatuz, munduari euskal leihoa irekiz eta “EITB proiektuaren” iraunkortasuna bermatuz.



Orain arte aztertu dugun bezala, EITB bilakaera betean dagoen ikus-entzunezko ekosistema baten parte da, eta gizartearen eskaera eta behar berrietara egokitu beharra dago. Egokitzapen hori teknologia berriek eskatzen dituzten komunikazio-modu berrietara ere hedatzen da; hori guztia sorrerako balio eta printzipioen testuinguruan kokatzen da, eta zaindu egin behar da.

Badakigu euskal gizartea eraldatzen ari dela, eta EITBk, aldi berean eboluzionatzeaz gain, aldaketaren parte izateko misioa du, benetako eragile eraldatzaile bihurtuz. Herriaren etorkizuna belaunaldi berrien esku dago, eta konfiantzazko erreferentzia hedabidea izatea merezi dute. Horregatik, estrategia berriaren lehenetsunetako bat gazteen balio eta ohituren aldaketara egokitzea da.

Etapari berri honekin, EITBren arima berresten duten estrategiari eta balioei zentzua ematen dien ikuspegi berri bat dator. Balio horiei esker, aldaketara ireki, aliantzak sortu, hedabideak eta edukiak partekatu eta informazioaren zehaztasunaren eta entretenimenduko aniztasunaren alde egiten jarraitu ahal izango dugu, betiere EITBren nortasunari eutsiz.

EITBk bere eduki eta hedabide eskaintza eguneratu beharra du baldin eta bere sorrerako eginkizuna betetzen jarraitu nahi badu, zeina baita euskararen erabilera indartu eta zabaltzeko, euskal kultura transmititzeko, “euskal frame” deritzogunaren barruko edukiak ekoizteko, informatzeko eta zerbitzu publikoa eskaintzeko ardura hartzen duen komunikabide-talde publikoa izatea.


Kontsumo-modu berrien eta plataforma digital berrien aurrean, EITBk euskal ikus-entzunezkoen eta euskarazko edukien bermea izan behar du. Globalizazioaren eta digitalizazioaren testuinguru berrian, komunikabide tradizionalen irismena, garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere, ez da nahikoa. Ez ditu aintzat hartzen edukien Internet bidezko kontsumo masiboaren errealitate berria eta eduki-plataforma berriak. Euskara eta euskal kultura ezin dira kontsumo-ohituren errealitate berri horretatik kanpo geratu, eta euskal gizartearen aurrean presente egoteko bideak aurkitu behar dituzte, formatuak eskaera berrietara egokituz.

EITBk bere egin nahi du ikus-entzunezko taldearen kontzeptua, ohiko komunikabideen rol tradizionala baino zabalagoa dena, modu horretara politika publiko propio gisa hartzeko bere edukia eta ikus-entzunezko ekoizpenak hedabide digitaletara ere zabaltzea. Horrela, euskal gizartearentzat erakargarri izan daitezkeen euskal edukien eta euskarazko edukien eskaintza lehenetsi nahi du, kalitatetik eta irisgarritasunetik abiatuta, produktu, hedabide eta eduki eskaintza handiaren aurrean kontsumo digitala bermatuz. Hori posible egiteko, EITBk edukia ekoizteko ereduak aldatu beharko du, Taldearen kanal propioetako eskaintza osatzeaz gainera, kontsumo digital berrietara zabaltzeko ahal izan daitezen.

EITB Taldea indartu nahi dugu, **gure komunikabideak euskal gizartearentzako erreferente bihurtuz informazioan eta zerbitzu publikoan**. Internet bidezko irratiak, telebistak eta informazio-kanalek, eraldaketa-prozesu handi batean murgilduta, euskal gizarte osoa gaurkotasunera eta entretenimendura iristeko bermea izaten jarraituko dute, hurbiltasunetik eta eduki propioetatik, gizartearen, kulturaren, kirolen eta politikaren errealitatea islatuz.

EITB Taldeko komunikabideek zerbitzu publikoaren lana indartu behar dute, demokrazia indartzeko, pluraltasunarekin eta egiazkotasunarekin konprometituta, eta euskal herritarren garapen sozial kolektiboan inplikaturik. Horrela, EITBren balio publikoaren 4 dimentsioak azpimarratuko dira: pertsonen balioa, balio soziala, balio kulturala eta balio ekonomikoa.

Belaunaldi berrien ohiturak eta balioak erronka dira EITBrentzat, bilakaera gertatuz baitoa euren interes eta adierazpideetan. Eraldaketa eta kausa global handietan parte hartzen dute eta, horretarako, teknologia digitalaren eta Interneten aroan, erlazionatzeko eta kontsumitzeko modu berriak erabiltzen dituzte. Hortaz, euskal gizartearen etorkizuna belaunaldi berrientzako proiektu erakargarri eta jasangarri bat eraikitzean datzan bezala, EITBren etorkizuna bere ikus-entzunezko eskaintzak eta bere proiektuak **gazteriarekin konektaturik** jarraitzean datza.



etb

etb

etb

etb

etb
basque



Horrek esan nahi du gure edukien eskaintza, bai informatiboa bai entretenimenduzkoa, etengabe egokitu behar dela joera, narrazio eta hedapen modu berrietara. Horrela bakarrik EITBk euskal gizarteari bere aniztasunean zerbitzatu ahal izango dio, belaunaldi berriei ere konektatuz. Horretarako, euskal gizarteari entzuteko dugun gaitasuna sendotu, gure informazio- eta prospektiba-sistemak eguneratu, eta berrikuntza eta sormena sustatu beharko ditugu. Asmo horretan, funtsezkoa izango da ikus-entzunezkoen sektorearekiko lankidetzak.

Horrela, EITB erreferentzia izango da gure publikoarentzat; **mundura irekitako leiho** bat izango gara, gure jatoriasunetik arituz, euskal kultura eta hizkuntza sustatuz, eta gizarte lehiakorra eta irekia garelako erakutsiz. Kontsumo digitalak nazioartekotzea, zalantzarik gabe, erronka handia da EITBrentzat, baina baita aukera bat ere; izan ere, egungo garaian, herrialde baten ikus-entzunezko ekoizpena munduari egin nahi dion kontakizuna da.

Helburu horrekin, estrategia eta egitura sendoak garatu nahi ditugu erronka berriei erantzun ahal izateko, aldaketara egokitzeko kulturari helduz eta **“EITB proiektuaren” jasagarritasuna bermatuz**.

Zorroztasunak izan behar du EITBko profesionalen lanaren funtsezko osagaia, bai edukien eskaintzan, bai kudeaketa-irizpideetan.

Gobernantza publikoaren aldeko apustua egiten dugu, orainaldian ezarri ditugun helburuak lortzeko eta Taldearen etorkizuna bermatzeko. Zalantzarik gabe, funtsezkoa izango da zerbitzu publikoko jarrera izatea, euskal gizartearen EITBren estrategiaren erdigunean jarritz, eta aliantzak eraikitzea hartuz hain sektore eta ingurune zorrotzean hori lortzeko ezinbesteko bidetzat.

Posizionamendu estrategikoa

EITB, komunikabideetatik haratago doan ikus-entzunezko taldea

Gaur egun duen funtzio soziala betetzeko, komunikabideak dituen ikus-entzunezko talde publiko gisa kokatzen da EITB, eta ez soilik komunikabideen korporazio gisa. Izan ere, gure kanalez gain, leiho eta plataforma gehigarriak kontuan hartzen ez baditugu, hutsune handiak utziko genituzke gure jardueran.

Benetan sinesten dugulako euskal gizarteari zor zaion EITB batean, unibertsala, irekia eta doakoa, pertsona guztiengana iristeko. Eskaintza zabala eta askotarikoa, hedabideak, generoak eta hedapen moduak barne hartzen dituen, kalitatezkoa eta egiazkoa. Eta apustu egiten dugu kontsumitzaileari nahi duena, egoki zaion tokian eta nahi duen moduan nahiz unean ikusi eta entzuteko aukera ematen dion EITBren alde.



Plataformak

Ikus-entzunezko edukien plataformak eta aplikazioak eragile erabakigarri bihurtu dira kontsumo-ereduetan. EITBren edukiak plataforma horietan zabaltzeko aukerak lotura zuzena du horien kalitatearekin eta interesa sortzeko gaitasunarekin. Estandar horiek ez lortzeak plataforma horietatik kanpo geratzeko bermea ematen du, baita audientzia mota askotan hedapen eraginkorra izateko aukera ere.

Kanalak

EITBk bere balio estrategikoa hedatu du bere irrati, telebista eta Interneteko kanalei esker, eta albisteen euskarri digitaletara, “Albisteak”, eta nahieran telebistara, “Nahieran”. Kanal horiek ikus-entzunezko produktuak hedatzeko eta sortzeko lehen elementuak dira.

Data + adimen artifiziala

EITBren egokitzapen teknologikoaren barruan, gure datu-sistema eta adimen artifiziala artikulatu behar ditugu produktuekin, kontsumoekin eta audientziarekin, edukien gomendio pertsonalizatuak eman ahal izateko, ohituren eta lehenetsien arabera.

Lehioak

EITBren ustez, bere funtzio sozialaren zati batek ikus-entzunezkoen mundura sartzeko modu berriak ere kontuan hartu eta jorratu behar ditu, “lehiak” deitzen ditugunak. Eremu digitalean kontsumo handiko espazioak dira, YouTube, Instagram, Facebook, Tik Tok edo Telegram, besteak beste. Funtsezkoa da EITB gune horietan egotea, eta, bereziki, euskarazko edukiarekin egotea, gazteek gure hizkuntzan ekoizteko aukera izan dezaten.

Edukiak eta ikus-entzunezko euskal ekosistema

EITBren ardatz estrategiko eta kontzeptuala euskal ikus-entzunezkoen eta kulturaren sektorea osatzen duten erakunde eta profesionalen multzoa da. Nukleo horrek sortzen ditu edukia eta kapital intelektuala, azkenean Taldearen inpaktu ekonomiko eta kulturala hedatzeko. Ardatz horretan inbertitu behar da giza gaitasunetan, gaitasun profesionaletan eta gaitasun teknikoetan, mundu mailan lehiakorra den eta Euskadin sustraiak dituen sektore bat izateko.



EITB, Europarekin bat

Eragina duen erakunde publiko gisa, Europako proiektuaren eraikuntzan parte hartzen duten erakunde ofizialekin eta beste batzuekin harremanetan jartzen da EITB, eta haiekin elkarlanean aritzen da. Alde horretatik, sei arlo eta gai hauteman ditzakegu, EITBren planekiko eta jarduketa-ildoekiko horizontalak, eta Europar Batasunaren balioekin eta jarraibideekin bat datoz.

Europako Batzordearen jarduketa-ildoekin bat datozen arloak




Demokrazia eta askatasuna

Bi alderdi horiek EITBren sorrerako printzipioetan jasotzen dira, eta, horregatik, Taldeak bere jarduketa-ildotetan sartzten ditu demokraziarako Europako ekintza-planaren hiru arlo nagusiak: hauteskunde-integritatea eta parte-hartze demokratikoa; askatasuna eta aniztasun mediatikoa; eta desinformazioaren aurkako borroka.



Berdintasuna eta aniztasuna

EITBk bat egiten du Europako planekin, bere eginkizuna, helburuak eta ekintza-planak aintzat hartuta, berdintasun-politikak sustatuz eta genero-ekitateari lagunduz "kameren aurrean eta atzean", bere tratamendua Euskadiko errealitatera egokituz. Gainera, honako hauek partekatzen ditu: LGBTIQ+ eskubideen sustapena eta ikusgaitasuna, desgaitasunen bat duten pertsonen inklusioa eta aniztasun etniko eta kulturala, bai edukietan, bai erakundean bertan eta sektorean.




Garapen teknologikoa eta ekoizpen birtuala

Europako Batzordeak, bere ekintza-planetan, teknologien eta proiektuen sustapenerako ekimenak proposatzen ditu, Errealitate Birtualarekin (EB) eta Errealitate Areagotuarekin (EA) zerikusia dutenak, bai eta sektoreen arteko lankidetzaren ere, arlo horretan Europaren lidergoa bermatzeko. EITBk bere estrategiaren egiturazko osagai gisa hartzen ditu teknologia berriak. 5G sareen garapenak, adimen artifizialak (AA) eta machine learning (ML) delakoak sormen-aukeretan eta ekoizpen-, banaketa- eta elkarrekintza-moduetan ere eragiten dute. Hori dela eta, Taldeak Euskadiko enpresekin lankidetzan aritzea du xede, eta Europa mailako proiektuak sustatzea.




Ikus-entzunezko ekoizpen “berdea”

Green Deal europarraren aginduek karbono-aztarna murriztea dute helburu, eta kliman inpaktu neutroa izango duen ikus-entzunezko sektore bat lortzeko planak jasotzen dituzte. Horretarako, sektoreko enpresa europarrekin jardunbide egokien egiturazko trukea sustatzeko ekintzen alde egiten da. Plan horiek jardueraren beraren zuzeneko inpaktuari eragiten diote, eta, beraz, EITBk jasagarritasun-proiektuak jarri ditu abian, ikus-entzunezko edukien ekoizpenari eta zabalkundeari lotuta.



Lankidetzeta eta itunak

Gaur egungo testuinguruan, Europa mailako itunak eta lankidetzeta ezinbestekotzat jotzen dira Europak zer-nolako erronka handiak dituen aintzat hartuta; ildo horretan, sektoreko enpresek (enpresa txiki eta ertain gehienek) botere handiko enpresa erraldoiekin merkatu globalizatu batean lehiatu behar dute. EITB oso txikia da estatuko, Europako eta munduko beste enpresa batzuekin alderatuta; beraz, ezinbestekoa da Euskadin eta Europan itunak lortzea elkarguneak eta interes komunak izan ditzaketen enpresekin, sektoreari ildo horretan laguntzeaz gain.



Europako balioak eta identitatea eraikitzea

Europari begira dagoen eta eraldatzen ari den gizarte baten zerbitzurako ikus-entzunezko taldea eta erakunde publikoa denez, EITBk eragina izan dezake eta izan behar du identitate europarraren eraikuntzan, balioak eta helburuak partekatzen baititu. Hizkuntza eta kultura gutxitua zaintzeko duen eginkizuna, euskal gizartearen eskaerei erantzunez, Europako proiektura zabal daiteke.

EITB taldeak sei arlo horiei lotutako ekimenetan parte hartzeak, zalantzarik gabe, Europako balioak eta identitatea eraikitzen lagunduko du. Ekimen horiek bat datoz EITB 2030 estrategian adierazitako helburuekin, bai eta haiek lortzeko asmo horretan aurrera egiteko finkatutako 12 lehentasunekin ere.

EITBren balio publikoaren dimentsioak

EITBk balioa eman behar dio euskal gizarteari, gizarte-eragina sortzen duen eragile aglutinatzaile gisa. Hainbat arlotako atributuak eta ekintzak balio publikoaren isla izango dira.

- Hurbiltasuna
- Konfiantza
- Zehaztasuna
- Kalitatea

- Ordezkaritza
- Aniztasuna
- Irisgarritasuna
- Ikuspena

Gizarte-balioa

Pertsonentzako balioa

Balio kulturala

Balio ekonomikoa

- Sormen-industriak
- Berrikuntza
- Abangoardia
- Lankidetzak
- Eskuzabaltasuna

- Euskera ezagutza
- Kultura-adierazpenak
- Gizarte-adierazpen bereziak

EITB Jarrera

“EITB Jarrera” izeneko hori Taldea osatzen duten pertsona guztien jarreraren ezarri behar da, bai eta euskal gizarteari eskaintzen dizkiogun eduki eta zerbitzuen ezaugarrietan ere.

Hemen oso garrantzitsuak gara. EITB lehen euskal komunikazio-taldea da, etorkizuna eraikitzen ari den gizartearen bozgorailu eta lekuko. Ibilbide oparoa du, eta gizartean eragin handia dauka, erantzukizun handia daukagu, eta, hori eskuzabaltasunetik bete behar dugu

Eskaintzen ditugun eduki eta zerbitzuei balio erantsia eman behar diegu, EITBn eta euskal ikus-entzunezko ekosistema osoan sormena sustatuz eta berrikuntza bultzatuz etengabe konektatuta egoteko eta euskal gizartearen beharrei eta eskaerei erantzuteko.

**Eskuzabal-
tasuna**

**Sormena eta
Berrikuntza**

Lankidetza

Zehaztasuna

Ikus-entzunezko komunikabideen talde handiek geroz eta dimentsio handiagoa eta globalagoa dute. Horien aldean, EITB oso txikia da. Une hau erabakigarria da ikus-entzunezkoen etorkizunerako. Horrenbestez, aliantzak eta lankidetzak bilatuko ditugu.


Egiten dugunak ondo egindako lan baten bermeak eta zorrozatasuna izan behar ditu. Zorrozatasuna islatu behar da, era berean, dauzkagun baliabide publikoak kudeatzeko dugun erantzukizunean ere.

Aurrera egiteko hamabi lehentasun

Komunikabide publikoek jardun behar duten ingurune ko joerak eta EITB 2030 ikuspegiarantz aitzina joateko aurre egin behar ditugun erronkak ikusita, gure jarduera-estrategiak eta EITB taldeen lan egiteko moduak gidatu behar dituzten 12 lehentasun identifikatu dira.



EITBk balio soziala eta gure herriaren errealtatearekiko konpromisoa ekarriko duen ikus-entzunezko talde publiko gisa duen erreferentzialtasuna eta posizionamendua indartzeko, lidergoari eutsi behar diogu euskal gizartearen aurrean, EITB marka eta haren kanaletakoa joera berriekin lotuz, berritzaileak eta espiritu irekikoak eta nazioartekoak izanik.



ETB da EITBk daukan baliabide nagusietako bat euskal gizartearen isla izateko proiektuaren baitan; ez soilik gaur egun duen konfigurazioan, baizik eta baita etorkizunerako asmo eta proiektu kolektiboetan ere. Horrek edukiak eta formatuak sortzera garamatza, zerbitzu publikoko euskal telebista berritzaile eta lehiakorra izan dadin.



Kontsumoko modalitate berriei jabetuta, EITBk irratia etorkizuneko entretenimenduko zerbitzu publiko hurbila eta erreferentea ikusten du gaur egun, ohiko emisioak aldatuko dituen eta kontsumo geroratuarekin eta eskariarekin konbinatuko dena, betiere kalitatean eta berrikuntzan oinarrituta.



EITB Euskadin informazioaren eta entretenimenduaren ekoizpen eta banaketa digitalaren buru izatea nahi dugu, eta euskarri eta plataforma berrietan euskarazko edukien eskuragarritasuna bermatu ahal izatea, batez ere gazteentzat eta haurrentzat.



Informazioaren lider izaten jarraitzeko, zerbitzu publikoaren osagaiak albistegi izatea egituratu behar du, herritarrek babestu behar baitituzte, hurbiltasuna, zehaztasuna eta kalitate-mailarik handienak. EITBk informazio-iturriak dibertsifikatzeko eta euskal gizarte berriak kontsumitzaile formatu eta euskarrietan informazio digitalaren lidergoaren alde egiten du.



Kirolak Euskadiko kulturaren eta kirol-ondarearen parte dira, eta, gainera, grina eta emozioen sortzaile handiak dira, EITBren kanalek gizartearen adierazpen gisa zaindu eta islatu behar dituztenak. Horregatik, euskal kirolaren erreferente izan nahi dugu, eta klubaren eta kirolarien garapenera eta hazkundera parte.



7

Aliantza ikus-entzunezkoen euskal ekosistemarekin

Ikus-entzunezko euskal ekosistema garatzen laguntzeko asmoz, EITBren helburua da enpresek eta profesionalen enplegua eta aberastasuna sortzeko dituzten gaitasunak hobetzea, bai eta Euskadin sortutako ekoizpen eta edukien garrantzia bultzatzea ere, kanpoko ezagutza eta irudia emanez.



8

Kudeaketa teknologiko berria

Ikus-entzunezkoen eta komunikabideen sektoreak eragin handiena jasan du teknologiaren etengabeko bilakaeran. Hori dela eta, erresilientzia-gaitasuna hobetu behar dugu, EITBri kudeaketa teknologikoko eredu berri bat emanez, arlo horretan etorkizuneko edozein erronkari aurre egin ahal izateko.



9

Etorkizunean inbertitzea

Etorkizuneko inbertsio eta plangintza etengabea funtsezkoa izango da EITB ikus-entzunezko sektorea jasaten ari den aldaketei aurrea hartzeko eta horietara egokitzeko, bai edukiak kontsumitzeko eta ekoizteko moduan, bai teknologiaren eta ekoizpen-hedabideen erabilera eta kudeaketan.



10

Zeharkako merkataritza-ekintza

EITBk oreka ekonomikoa bermatu behar du, eta bere baliabide propioak sortzeaz arduratu, euskal gizarteari eskainitako edukiak hobetzeko. Merkataritza-ekintza eraginkor batek aukera emango dio EITBri sektorean lehiatzeko espirituari eusteko eta erreferente nagusia izateko, euskal produktuek eta enpresek Euskadiko merkatuan duten lekua bermatuz.



11

Enpresa egitea

Komunikabideak EITB Median sartzea aukera ezin hobe izan behar da kudeaketa-eredua eguneratzeko; horretarako, zerbitzu korporatiboen eta negozio-unitateen artean integrazio handiagoa bultzatu, zeharkakotasuna sustatu eta proiektuaren finantza-jasangarritasuna bermatu beharra dago.




12


Gobernantza publikoa eta aliantzak sortzea

EITBk gobernantza publikoaren sistema finkatu behar du; horretarako, Euskal Irrati Telebista arautzen duen Legeak ezarri dituen kudeaketa publikoko eta kontrolako organoekin lankidetzan arituko da, erakunde, stakeholder eta euskal gizartearen aurrean zilegitasuna areagotuz. Gainera, proiektu bateratzaile bihurtu behar du, zerbitzu publikoaren espiritua eta euskal gizartearen ekimenak babesteko espiritua bermatzeko.

5

2021-2025 ekintza-plana






EITB 2030 Ikuspegian zehaztutako eredurantz aurrera egiteko, identifikatutako 12 Lehentasunen esparruan, gure errealitatean aldaketa nabarmena eragingo duten jarduerak konfiguratzea eta gauzatzea ahalbidetuko duten estrategiak zehaztu behar dira.

EITBko hainbat taldek egindako barne-lanaren ondorioz, lehen zehaztutako 12 Lehentasun horietako bakoitza hainbat Ekintza-ildotan hedatu da, eta horiek dira Lehentasun horiek lortzeko jarraitu beharreko aurrerapen-estrategia zehazten dutenak.

Era berean, Ekintza-ildo horiek inspiratu dute EITB taldeek Proiektu-sorta zabal bat identifikatu izana, eta horiek dira benetan garatzen ari den aldaketa gauzatzen dutenak.



1. EITB: erreferentea eta konpromiso soziala

EITBk Euskadi eraldatzen lagundu nahi du, euskal gizartearen kausetan inplikatur. Horretarako, komunikazio publikoko talde gisa duen erreferentzialtasuna eta posizioa indartu nahi ditu, bere lidertzari eutsiz eta posizioa finkatur. Halaber, EITB marka eta EITBren kanalen markak berdintasunarekin, joera berriekin, berrikuntzarekin eta espiritu ireki eta internazionalarekin lotu nahi ditu.

EITBk zerbitzu publiko izaera azpimarratu nahi du, funtsezko gaietan lagunduz; hala nola, euskara indartuz, bere normalizazioan eta zabalkundearen eragile gako izaten jarraituz, kultura babestuz eta komunikabideek gizarte-hezitzaile gisa duten zeregina bultzatuz.

Komunikabideak prestakuntza eta eraldaketa sozialeko eragileak dira, eta, beraz, EITBk rol aktiboa hartu behar du aurrerapen sozialeko esparruetan. “Pantailaren aurrean eta atzean” kontzeptua bere egin behar du, berdintasuna eta aniztasuna zeharkako ardatz gisa hartuz eta euskal gizartearen aurrerakuntzarako kausetan inplikatur.

Ekintzak egin behar dira gazte eta haurrekin konektatzeko gure eduki, formatu eta plataformen bidez, batez ere euskaraz. Une oro joera, ikusle eta eduki berrietara egokitzeko eta aurrerapen digitalak erabiltzeko erronka bete nahi bada, EITBn berrikuntza eta sormena sustatuko dituen informazio- eta ikerketa-sistema bat garatu behar da.

Ekintza-ildoak:

1. Zerbitzu publikoaren eginkizuna bultzatzea, euskara, euskal kultura eta komunikabideen izaera hezitzailea indartzen lagunduz.
2. Euskadi eraldatzen laguntzea, berdintasuna eta aniztasuna gizartearen bultzatzea eta kausa sozialetan inplikatzeko.
3. Gazte eta haurrekin konektatzea, eduki, plataforma eta formatu berrien bidez.
4. EITBk euskal ikus-entzunezko talde erreferente moduan duen posizio soziala indartzea.
5. EITBn berrikuntza eta sormena sustatzeko informazio- eta ikerketa-sistema garatzea.



2. Etorkizuneko telebista

ETB da EITBk daukan baliabide nagusietako bat euskal gizartearen isla izateko proiektuaren barruan; ez soilik gaur egun duen konfigurazioan, baizik eta baita etorkizunerako asmo eta proiektu kolektiboetan ere. Euskal telebista publikoaren edukiak eta formatuak lagungarriak izan behar dira EITB euskal telebista berritzaile moduan kokatzeko, zerbitzu publikoa eskainiz eta lehiakorra izanik. Euskal gizarteari lagundu behar dio benetakotasunetik aurrera egiten, baina, betiere, munduari zabalik, euskararen erabilera sustatuz, gizartearen aniztasuna edukietan islatuz, eta informazioa eta entretenimendua eskainiz, kalitatezko eredu publikoa bihur dadin.

Horretarako, EITBren konpromiso sozialean kokatutako eduki eta formatu lehiakorrek sortu behar dira, eta, beraz, garrantzitsua izango da talentua erakartzea eta erreferente sozialak izango diren profesionalak garatzea. EITBko komunikabideen arteko lankidetzan aurrera egin behar da, proiektu krosmediak garatuz; horretarako, kontzeptu hori ezartzeaz gain, bere frankiziak finkatzeko eta komunitate digitalak sortzeko estrategia digitala indartu behar da. ETB marka finkatzea, eta, aldi berean, kanalen nortasun propioan aurrera egitea da helburua.

Ekintza-ildoak:

1. ETB marka eta kanalen nortasun propioa finkatzea.
2. Konpromiso soziala duten eduki eta formatu lehiakor berriak indartzea.
3. Frankiziak finkatu eta komunitate digitalak sortuko dituen estrategia digitala sustatzea.
4. ETBko komunikabideen artean lankidetzan aritzea, proiektu krosmediak garatzen.
5. Gizartearen erreferenteak diren profesionalak garatzea eta talentua erakartzea.



3. Etorkizuneko irratia

EITBk irratia ren etorkizunean sinesten du, baina badaki kontsumo-mota berriak gailenduko direla ohiko emisioen gainetik eta, hala, aurrez grabatutako saioen kontsumoa, eskarien araberako saioak, podcastak eta bestelako elementuak uztartuko direla. Hori guzti hori da etorkizuneko irratia eta, EITBren kasuan, kalitatean eta berrikuntzan oinarritu behar da, gaurkotasunaren erreferente izateko eta zerbitzu publikoa, entretenimendua eta hurbiltasuna eskaintzeko.

Horretarako, irratia digitalizatzeko lanak garatzen ari da EITB, bere produktuak plataforma eta leiho digital berrietara transferitzeko prozesuak hobetze aldera.

Baina, zalantzarik gabe, hurbiltasuna lortzeko, irratia k gizartearen hedatu beharko dira, eta euskal gizartearekiko konpromisoa hartu, kalean ez ezik taldearen gainerako hedabideetan ere egoteko, eta, hala, produktu krosmedietako partaidetza eta zeharkakotasuna areagotzeko.

Ahotsak dira irratia ren arima. Ondorioz, profesionalen taldeak sortu eta irratia talentua erakarri behar da, eta, horrez gain, formatu eta eduki berriak garatu, EITBk etorkizunarekin duen konpromiso soziala isaltzeko. EITBk euskal lurretan duen posizioa hedatu behar du, EITBren irratia kanal bakoitzaren nortasunari eutsiz.

Ekintza-ildoak:

1. EITB Irratia taldea indartzea eta formatu eta eduki berrietan berrikuntza garatzea.
2. EITBren irratia bakoitzak duen lurralde-posizioa eta nortasuna hedatzea.
3. Irratia digitalizatzea eta EITBren proiektu krosmediak hedatzea.
4. Gizartearen egotea eta euskal gizartearen eraldaketarekiko konpromisoa hartzea.

Top Euskara

Top Castellano

Saioak

Dibulgazioa

Gastronomia

Kultura



4. Zerbitzu eta eduki digitalak

EITBk Euskadin informazioaren eta entretenimenduaren edukien ekoizpen eta banaketa digitaleko lider izan nahi du, eta, era berean, euskarazko produktuak euskarri eta plataforma berrietan eskuragarri daudela bermatu, batez ere gazte eta haurren artean.

Eduki globalak dituzten plataformak ugaritzen ari diren honetan, berrikuntza hori erronka handia da euskararentzat. Ondorioz, EITBren ustez, beharrezkoa da Primeran plataforma garatzea, ikus-entzunezko euskal edukiak eta, betez ere, euskarazkoak batze aldera.

EITBk bermatu egin behar du bere zerbitzu digitalak irisgarriak eta teknologikoki kalitatezkoak direla. Horrenbestez, beharrezkoa izango da sistemak eta tresnak berritzea, teknologiaren kudeaketa berriaren bidez.

EITBren estrategi krosmediak eduki digitaletan izan behar du erronka nagusia, taldearen frankizia indartu, EITBren komunitate digitala sortu, eta Data & IAren kudeaketa sartzeko asmoz.

Ekintza-ildoak:

1. EITBko eduki eta frankizien “krosmedia digitala” bultzatzea.
2. Primeran: euskal edukiak batzen dituen plataforma garatzea.
3. EITB komunitate digitala sortzea eta Data & IA aplikatzea.
4. Euskara sustatzea kontsumo digitalean.
5. Gure zerbitzu digitalen irisgarritasuna eta kalitate teknologikoa bermatzea.



5. Liderra informazioan

Euskal gizartean aniztasunaren eta egiazkotasunaren erreferenteak eta informazioan liderrak izaten jarraitu behar dugu. EITB zerbitzu publikoa denez, horren arabera antolatuko da informazio-zerbitzuen izaera, herritarren babesarekin, hurbiltasuna, zorrotasuna eta kalitate-maila altuak bultzatuz. Informazio-iturriak ugaritzen ari diren honetan, EITBren apustua integrala izan behar da: informazio digitalean lider izatea lortu behar du, eta euskal gizarte berriak kontsumitzen dituen hedabide eta formatu berriak aurkitu.

Etorkizunean, lidertza informatiboa zeharlerrokoa izango da EITBko komunikabide guztietan eta eduki krosmedietan. Horretarako, “EITB agendaren” alde egingo du apustu, talde moduan indartzeko. Halaber, informazio-produktu berrien alde egingo du, Euskal Irrati Telebista Publikoak gizarteari ematen dion balioa areagotzeko.

Lehia eta kontsumo berriak asetzeko, EITBko taldeek albistegietan eta hizkuntza berrietan etengabe berrikuntzan aritu beharra dute eta, aldi berean, profesionalak sustatu, informazioaren gaineko zorrotasuna eta sinesgarritasuna bermatzeko.

Ekintza-ildoak:

1. Albistegietan erreferentzialtasuna indartzea, pluraltasuna eta egiazkotasuna finkatuz.
2. Zerbitzu publikoaren izaera eta EITBren informazioarekiko konpromisoa indartzea.
3. “EITB agenda” ezartzea, izaera krosmedia duten edukien zeharkako idazkuntza indartzeko.
4. Informazio digitalean eta media berrietan liderrak izatea.
5. Berrikuntza sustatzea eta hizkuntza eta informazio-produktu berrietara egokitzea.



6. Erreferenteak kirolean

EITB euskal kirolaren erreferente izan behar da, Euskadiren kirol-ondarea zaintzeko. Era berean, klubei eta kirolariei lagundu behar die beren proiektuetan. Kirolek pasio eta emozio ugari pizten dituzte. Ondorioz, EITBren kanalek horixe islatu behar dute, euskal gizartearen adierazpide diren heinean.

Kirol-arloko edukiek EITBren bereizgarri izaten jarraitu behar dute, eremu horretan sortzen ari diren garapen teknologikoa eta ahale- gin-maila kontuan hartuta. Ondorioz, ekoizpenaren gaineko berrikuntza sustatu behar dugu, eta eremu digitalari bultzada bat eman.

EITBk kirolean emakumearen berdintasunarekiko konpromisoa hartu nahi du, “pantaila aurrean eta atzean”; horretarako, emakume kirolariak babestuko ditu, eta emakume profesionalak EITB Kirolak erredakziora sartzen direla indartu.

